

Sanpedroak MUNGIAN

Mungiako San Pedro jaiak ofizialki atzo ilunabarrean hasi baziren ere, jai giroa pil-pilean dago joan den ostiral gauaz geroztik. Aurten lehendabiziko aldiz feria lekuan kokatu diren txosnak arduratu dira aurreko egunetako giroa berotzeaz.

Marijata esnatu da jada

GORANE AGIRRE

Mungiako semea den Juan Carlos Goitiak, Euskadiko aurtengo pala txapeldunak, emango die hasiera gaur aurtengo San Pedro jaiei, pregoia irakurri eta txupina botaz. Udaletxeko balakoipean bilduko diren konpartsetako ehundaka gazteak arduratuko dira Marijata bere lozortetik iratzarri eta jai giroan murgiltzeaz. Mungiako Sanpedroetako erregina den Marijata, jadanik, bere saltsan dabil, gau eta egun parrandan, alegia. Esnatu da, bai, ondo esnatu ere, eta orain ez du lotarako gogorik.

Aurtengo Sanpedroetan hiru jai gune nagusi daude. Batetik, aurten lehendabiziko aldiz feria lekuan kokatu dituzten txosnak. Gune honetan, gaztetxoek biltzen dira trago batzuk hartzeko eta Zarama, E.H. Sukarra, Imuntzo eta Beloki, Anje Duhalde, Ke Rule edota Su Ta Gar entzun edo beren doinupean dantzatzeko. Gaur, adibidez, Imuntzo eta Beloki eta Egan izango dira bertan.

Bigarren jai gunea Foruen enparantza dugu, 'karrozatxoenen' lekua, alegia. Bertara, tango, bolero edo agarrauk goxo-

goxo dantzatzera hurbiltzen dira bikote helduak, txosnetako zaratatik ihes egin nahian. Aurten go jaietan, Egan, Che Pausa eta Kepa eta Leturia arduratuko dira herriko 'karrozatxoenei' martxa pixka bat sartzeaz.

Beraz, zuk atsegin duzun giroaren arabera, bi gune hauetako bat aukeratu, zapatilak jantzi eta zoaz dantzara. Gorputza mugitzeko aukera ezin hobea duzu jai hauek eskaintzen dizutena.

Jolas Parke erraldoia

Aurten, lehenbiziko aldiz haueta ere, Mungiako umeek beraiantzako tokitxo ba izango dute. Udalak Aita Elorriaga kalea ixtea erabaki du eta bertan umeentzako jolas parke erraldoia antolatu dute. Bertara hurbiltzen diren haurrek denetarik pixka bat aurkituko dute egun hauetan, gaztelu puzgarriak, jokoak, motorrak, tailerrak, ohe elastikoak eta beste jostagarri anitz.

Kirol ekitaldiek, urtero lez, garrantzi berezia dute aurten ere Sanpedrotako egitarauan. Horrela, lehen mailako eskuzko pilotarien jokoa edota Iñaki Perurena eta Mikel Saralegik, 200 kiloko harriarekin beroketak egin ostean, 250 eta 280 kilokoak jasotzen ikusi ahal izango ditugu. Idi probak eta txirrindulariek ere bere tokia izango dute aurtengo jaietan.

Bihar, arratsaldeko zortzietan, konpartsen jaitsiera izango da. Ordu erdi beranduago, Xilipurdi



MIKEL

Jaiak irauten duten bitartean Mungiako kaleak jendez gainezka egotea espero da.

EGITARAUA

GAUR

19.30 Konpartsen jaitsiera. Ardo Barrura fanfarria, Bizkaitarrak, trikitrixak, buruhandiak, Gure ametsa txistulari taldea, Bilboko gaiteruak eta Mairuek Bilboko Erraldioen konpartsa. Bakoitza bere alde tik ibiliko da eta ordu honetan Udaletxearen aurrean bilduko dira jaiei hasiera emateko.

20.00 Juan Carlos Goitia pelotariak pregoia irakurri eta txupina botako du Udaletxeko balkoitik.

Marijataren jaitsiera.

20.15 Laguntaldearen kalejira

20.30 Txosnen txupinazioa, txalaparta eta jokoak, txosnen gunean.

23.00 Egan-ekin berbena Foruen enparantzan.

23.00 Imuntzo eta Belokiren kontzertua feria lekuan.

Sukalki Eguna Mungian

Iaz irakaskuntzako sare pribatuan sartzea erabaki zuen Mungiako Larramendi Ikastola arduratuko da igandeko Sukalki Eguna antolatzeaz.

Askorentzako San Pedro jaietako egun politena den Sukalki Egunean dena ondo baino hobeto atera daiten, Larramendiko gurasoek aste batz

daramatzate buru-belarri lanean.

Uríguen parkean, jadanik, dena prest dago gisatu lehiaketan parte hartuko duten inguruko herrietako ehundaka lagun biltzeko. Ohiturari jarraituz, bertara hurbiltzen den lehiakide orok praka urdinak eta alkandora edo kamiseta zuria jantzi beharko ditu.

antzerki taldea ikusi ahal izango dute antzerkizaleek, eta dantzak atseginago dituztenek, aldiz, Euskal Dantzak ikusteko aukera izango dute. Gaueko hamabi t'erdietan, bi filme izango dira ikusgai Mungiako kalean. 'Blade Runner' eta aurtengo Oscar banaketan Oscar bat irabazi duen 'Belle Epoque' filme espainiarra. Bertan, Ariadna Gil, Jorge Sanz, Gabino Diego eta Penelope Cruz aktoreak ikusi ahal izango dituzue beste batzuen artean.

Elot school

Ikastaro trinkoak
uztaila eta abuztuan

Zorionak !!

Gamiz Bidea, 15
Tel.: 615 62 63

48100 MUNGIA (Bizkaia)

iñaki

JOSTUNDEGIA eta GIZON-MODA

San Pedro kalea, 4

Tel.: 674.04.01

MUNGIA

AAA
ARTZA
KIROL MODA

Butroi, 15
Tf.: 615 65 90

Aita Elorriaga, 9
Tf.: 674 48 99
48100 MUNGIA



**HERRIKO
TABERNA**

MUNGIA

Lanaxeta, 18

Tel. 674 10 30

KYTTYN
ARGAZKIAK - LORAK

LAUAXETA, 1

TEL.: 674 11 20

MUNGIA

Torpedo
GORRIA
MUNGIA RUGBY TALDEA

Lauaxeta, 1
Tel.: 615 50 61
MUNGIA